

# Hitzontzi

Literatura sorkuntza

ANTTON IRUSTA

Garai batean, aspaldian, arroza sortu zen eta Indonesiako Java uhartean oraindik gogoan dute nola izan zen. Horri buruzko legenda bat oso ondo gordeta dute. Ez dakigu denboraren astinduek zenbat egia kendu edo zenbat fantasia erantsi dioten, baina arrozaren jatorriaren azalpena oraindik ere kontatu egingo dizute Java uhartean.

Javan makina bat gauza ikus liteke nahi izanez gero, baina ez dago begia nekatu beharrik arroza ikusteko. Hala ere, arroza aspaldian baldin badago, bertokoek badakite munduaren sorrerarekin batera ez zela agertu, geroago baizik.

Legendaren hasieran, beste hainbestetan bezalaxe, Xiva jainkoa dago. Pentsatzen ari da, zerbait berri egin nahi du. Izaki goren bat, handia, ederretan ederrena bai itxuraz eta baita espirituz ere.

Halaxe sortu du *Retoadumila*, gure hizkuntzan harri dirdiratsua esan nahi duena. Zein neska ederra den Retoadumila, ederra egiten hasi eta zoragarria irten zaio Xiva jainkoari. Ez zuen hainbestekorik espero baina bai, neska perfektua atera zaio.

—Nire emaztea izango da —erabaki du Xibak bere artean.

Ezkontzeko ere esan dio.

—Aizu! ezkondu nahi al zenuke nirekin?

Neska izutu egin da.

—Ai ene!

Neska zalantzakor ageri da. Ezetz? Baietz? Ziur-ziur ez dago, ez pentsa. Badaezpada ere Jainkoei galdetu die. Hauek baietz esan diote, ezkontzeko berarekin.

Lantegi zaila du Retoadumilak. Ezkontzea pauso inportantea da, eta Xivarekin ezkontzea are gehiago.

Azkenean baiezkua ematea erabaki du, bai-

na ez hutsaren truke. Baldintza bat jarri dio Xivari. Berarekin ezkontzekotan munduko jakirik gozoe-na ekarri beharko dio; egunero-egunero jan eta, hala ere, sekula aspertuko ez duena.

Hor ditugu, beraz, Retoadumila neska zoragarria, ezkondu aurretik baldintzak jartzen, eta, bestalde, Xiva bera, neskak eskatutako munduko jakirik gozoenaren bila joateko jendea biltzen.

Direnak eta ez direnak ekarri dizkiote neskatoari, Retoadumilari, baina ezin dute inondik ere asmatu, haren ahosabaia ez da erraz kontentatzekoa, non-bait.

Orduz geroztik, Retoadumila ez da lehenengo neska bera, gero eta tristeago dago. Burua makurtzen ari da, distira galtzen eta, tristura sakonegi egin denean, Retoadumila gajoa hil egin da.

Xivak sortutako gizaki perfektu hark bere sortzailearen besoetan eman du azkeneko arnasa.

Hileta handia egin diote neskari eta lurperatu ere bai, hain zuzen munduko jakirik gozoena amesten zuen neska eta, lurperatutako lekuan landare bat jaio da.

Laster ulertu du Xivak neskak eskatutako janaria emango duela landareak, munduko janaririk gozoena, egunero janagatik sekula aspertzen ez duena.

Xava jainkoak hartu egin du landare horren hazi zuri-txikia eta *Pari* izena jarri dio, guk arroza esaten duguna.

Xivak ondo daki Retoadumilak gizakiaren zorionerako sortu duela landare hori, eta asmo horrekin, neskaren espirituari jarraikiz, gizaki guztientzat zabaldu du alea, zorionsu izan daitezen.

Javan dudarik ezta, esker onekoak izan dira Xivaren opariarekin.

